

Yosemite eta grabedadearen paradisua

XABIER ANSA

En los últimos años el valle de Yosemite, en California, ha llegado a ser una leyenda para los alpinistas de todos los lugares del mundo. Coincidiendo con la expansión y el desarrollo de la moderna escalada en roca, la aparición del libro de Meyers «Escaladas en Yosemite» nos adentraba en un mundo desconocido, gigante y mítico, el de las grandes paredes y las escaladas extremas.

*Yosemite Fall,
ezkurdiren leku
ederrenetako bat da.*

Foto. Jesus Oarza

Ez naiz haizea, ez eta udaberriko goiz preskoetan jaiotako intz ezea; ez naiz horma batetako haitz puskatxoa, ez grabedadearen indarra ere. Mendientzat beraiek azkuretzen dituzten arkakoso galdu batzu besterik ez gara; eta hori sentitzeak poza ematen digu. Jende askorentzat berriz bizia azkuretzen ez dakigun zoro batzu gara. Baina jende askok ez du haizearekin hitzegin. Jende askok ez du intzez bustitako belardi batean oinutsik ibilitako plazera sentitu. Jende asko ez da grabedadearen hatzamarrekin topatu. Jende askok eroturik gaudela dio gure egunak

urrearen truke saltzen ez ditugulako, eta nik erotzat jotzen ditut nire egunek prezio bat dutela uste dutelako.



Kapitainaren azpian

Era honetako bidaia guztietan, atera aurretik egin behar diren trakeskeria guziak osatuta zeudela edo iruditu zitzaigunean, hegazkinerako txartelak hartu eta bagoaz!! ia lehertu beharrean zeuden bi zakuk arrastaka genituelarik. San Franziskon ordubiak

aldera eman genuen bueltatxo batek garbi adierazi zigun han ere leku guztietan bezala badirela desastre galantak bai eta hori buruzko hemendik generamatzen ideia eta susmotxarrak suspertu ere.

Autobusetan ere zenbait bidaia egin ondoren halako batean, azken urte hauetan hainbeste desiratutako Yosemite haranera iritsi ginen. Karrera ezin hobea egin zigun haranak: Kapitaina, bere sudur puska nabarmen zuelarik, harro eta tente, baserriko txakurra, atarian, txabola aurrean bailitz, zaunkarik egin gabe, bere seriotasun eta

Salathe Wallen lo-egin ondoren lehen argi-izpiak.



Mila metroko Kapitaina; ezkerrean «Salathe Wall» eta eskuinean «The Nose», bietan lo egindako lekuak puntutxo batez seinalaturik.

errespetoaren arrokeria bazter guztietatik zeriola.

Baina asuntua aurrera ziholarik, han ere zaunka egiten zuten zakurrak bazirela konturatu ginen, eta Meyers jaunari bere liburu famatuan, haranean turisten bizimoduarentzat ezarrita dauden zenbait xehetasun azaltzea ahaztu zitzaiola. Bertako zakur gehienek, denek ez, «ranger's» izena dute eta ez dira txantxetan ibiltzen.

Gure artean errezero txarrak indartzen hasi ziren eta zenbait kasutan guk zergaitiaren galdera egin eta erantzuleak bizkarra igo eta bi sorbalden erdira burua jaitsiaz «hemen gauzak horrela dira» esaten zigunean, haseran behintzat erabat txundituta geratzen ginen. Piskana, piskana, han lotsak alde batetara utzi eta ijitoen bizimodu lotsagabea hastera kondentatuak geundela kontzientziazten hasi ginen. Halaxe egin ere, eta gauzak oso ondo joan zitzaizkigula esan beharra dago, nahiz estropozo batzuetan lurretik altxatzea dexente kostatu. Hemendik ia batera diruruik gabe atera ginen, zakuak janariz beteta genituelarik eta katuhanka pila bat saltzeko asmotan.

Bide dotoretan

Hara iritsi et lehenengo asteen euria goian behean eten gabe aritu zuen. Belarrietatik kea dariola jartzen hasiak ginen eta egun batez eguzkia, bere masail gorrietan lotsa nabari zitzaiolarik, belardi, baso eta haitzak legortzen hasi zen.

Eskaladako bide motz batzu egin eta **The Nose** izenaz deitzen duten Kapitainaren sudurrerantz abiatu ginen. Bide hau hiru egunetan egin genuen, bertan bi gau pasa genituelarik; eguraldi ederra eta oso beroa ez zen batek eta beste kordada frantzes baten konpainia atseginak lagundu ziguten eskalada hau gustora egiten. Xantirekin egin nuen eta biok bat genozen bide hau zogarria zela esaterakoan: behetik gora, mila metrotan, bata bestearen atzetik erantsitako fisurak dira. Montero et Txurik ondoren egin zuten beste intentu batetan jaitsi beharrean aurkitu ziren, ondoko kordada bati zartako eder

bat hartu ondoren jaisten lagundu nahi bazioten behintzat.

Sudurretik jaitsi eta handik bost egunetara Kapitainaren **Salathe Wall** izeneko beste bidea egin nahian edo hasi ginen. Lehenengo egunean eskalada zati eder bat igo ondoren, bost soka fijatu eta beheara jaitsi ginen afaltu eta lo egitera. Laurok gindoaizen eta planteiamendu arin baten aurkera egitera iritsi ginen aurreko eskaladaren esperientzia zutabe bezala genuelarik. Nahiko planteiamendu konprometitua zen, baina egin zitekeela ere garbi zegoen. Petaterik gabe, kordada bakoitzak (bi bait ginen) gauza behar-beharrezkoak zeramatzen motxila arin bana hartu eta martxa!! Bi egun eta bien arteko gaua paretean pasa ondoren gailurrean ginen, lurjota, baina laurak, horrela egiteak pena merezi zuela ustean. Bide honek aurretik sudurrean egindakoak baino maila hobeto bat eskatzen du, bai eskaladako zati gogorrak dituelako eta bai eta bertan materiale gutxiago dagoelako ere.

Ondoren, oraindik ere eguraldi on eta egun gozo batzuen laguntzarekin, Meyersen liburuan azaltzen diren argazkietako zenbait bide dotore egin genituen: motzak, oso politak eta gehienak roskatik pasatakoak. Hauetan aipagarrienak: Wit Thin, Butterfingers, Good Book, e.a.

Berriz ere horma handi batetako nahiak edo bultzatuta, Montero eta biok Half Dome izeneko mendira abiatu ginen **Regular** izena duen bidea egitera: bai gustora egin ere, bere 600 metrotan 24 luze zituen eta hamar ordutan egin genuen, soka fijorik gabe, materiale hutsarekin eta hemengo estiloan, bigarrenak ere eskalatzen zuelarik. Oso gustora geratu ginen, bai eskaladagatik, bai eta bertara iristeko duen ia bost ordutako ibilaldi aluzinanteagatik ere.

Handik egun batzutura, Xanti eta Txurik Middle Cathedral Rocken 500 metrotako beste bide interesgarri bat egin zuten.

Zilegia da paper txatxu eta ahul batetan hainbeste istorio kontatzea; onena bertara joan eta ikusi eta bizitzea, baina hori bai, lotsak etxean utzi, han lotsa izatea infernuan bonbero izatea bezalaxe baita. Ah! eta zakuak pare bat babarrun ahaztu gabe eraman, han asko dakite baina jaten ez bait dute oraindik ikasi...

Kapitainaren gailurrean, zerbait jan edo edateko amorratuta.




Foto: Jesús Orra

PARTAIDEAK:

Jose Montero, Xanti Galar, Xabier Ansa eta Francisco Blanco (asturiarra, guretzat «Txuri») gurekin ibili zen denboraldi guzti honetan.